



Ilusioa luzatzeko prest

Lanari ekin dio Athleticek, iaz bezala aurten ere liga irabazteko ibarropenez. Txapeldunen Liga ere jokatuko dute aurten, zortzi urte geroago. Gogotsu aritu dira lehen lan saioan. • 18

ASTEAZKENA, 2016KO UZTAILAREN 27A • XIV. URTEA • 4.064 ZENBAKIA • WWW.BERRIA.EUS

1,40 EURO

«Nahiko nuke hurrengo agintaldian Maltzagaraino iristea»

Andoni Ortuzar

EAJren EBBko presidentea • 4



AMPSOL/AMAZON/PIRELLA

Harian 2

Epailak aske utzi ditu Epsiloneko buruak, emurik ez dutela ebaztita

Fiskalak zortzi urteko zigorra eskatua zuen Joan Villadelprat eta Mark Payne akusatuentzat, baina epailak ez du delituri ikusi Epsilon porrotera eraman zuen jardueran, eta errugabetu ditu. • 10

Frantzian apaiz bat hil eta beste lau katoliko bahitu dituzte bi jihadistak

Normandian egin dute eraso, labanak eskuan. Eliza batean sartu, eta bost pertsona bahitu dituzte; haietako bat hil dute: apaiza. Poliziek erasotzaileak hil dituzte. Elk bere gain hartu du. • 12

Udagiro 25

Donostiako Zinemaldiak 14 zuzendari berrien lanak erakutsiko ditu

Lehen edo bigarren lana filmatu berri duten hamalau zinemagileren lanak aukeratu ditu Zinemaldiak, Zuzendari Berriak sailean erakusteko. Ugariak dira jatorrietan eta gaietan. • 26



AMPSOL/AMAZON/PIRELLA

Hondarribiko aireportuari eusteko, lankidetzaz eskatu diote Espainiari

Europako segurtasun arauak betetzeko, 300 metro kendu beharko lizkiokete aireportuari, eta horrek kolokan utziko lituzke hainbat hegaldi • Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak esan dute beren esku dagoen guztia egingo dutela «konponbide bat bilatzeko» ••



MARISOL RAMÍREZ / ARGAZKI PRESS

«EAJ eta EH Bildu herri akordio handiak egiten ikusten ditut»

Andoni Ortuzar • EAJren EBBko presidentea

«Zail» iruditzen zaio Ortuzarri EAJ eta EH Bildu Jaurlaritzarako itun baterako ados jartzea, baina uste du biek «herri mailako arazo nagusietan» akordioak egitea, «posible ez ezik, beharrezkoa» ere badela.

Gotzon Hemosilla Bilbo

Egunotan AEBetan dago Andoni Ortuzar (Abanto, 1962) EAJren EBBko presidentea, Alderdi Demokratikak Hillary Clinton presidentetzarako hautagai izendatzeko Filadelfian antolatatu duen biltzarra dela eta. Hara abiatu aurretik elkarriketa eskaini dio BERRIARI Sabin Êtxean duen bulegoan, eta, batez ere, Euskal Herriko egoera politikoa eta Eusko Legebiltzarrerako udazkeneko hauteskundeak izan ditu mintzagai. **Zelan ikusten dituzue Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeak?**

Euskal boto-emaiak gero eta se-

lektiboagoak dira botoa emateko orduan, eta aukera egiten dute garai politikoaren eta instituzioaren arabera. Azkeneko urteotan ikusi dugu hori: hauteskundeen aurreko jokabidea oso desberdina izan da, eta, esate baterako, Gasteizko hirian lau alderdi suertatu dira garraile -EAJ, EH Bildu, PP eta Ahal Dugu-, hauteskunde motaren arabera. Baina, azkenean, ura bere bidera dator. Nik uste dut jendeak badakiela hauteskunde autonomikoetan izaera dagoela jokoan, nazio izaera, autogobernua, eta uste dut alderdi abertzaleok abantaila horrekin ateratzen garela. **Litekeena da EAeko hauteskunde horien ostean orain arte ikusi**

gabeko itunen edo akordioaren bat egotea, emaitzek derrigor-tuta. EAJ prest dago horretan sartzeko?

Jakina. Denok dakigu legebiltzarraren eragile berri bat indartsu agertzen denean, seguru asko Ahal Dugu-k egingo duen moduan, joko zelaia aldatu egiten dela eta litekeena dela bestelako itunak egin behar izatea. Baina uste dut zalantza, EAJk hori nola hartuko duen baino gehiago, beste bat dela; alegia, Ahal Dugu zelan sartuko den herri honetako normaltasun instituzionalean. Guk frogatu dugu guztiekin hitz egin eta itunak egiteko gai garela. **Zuzenago galdetuko dizut: EAJk**

bere burua ikusten du EH Bildurekin Eusko Jaurlaritzarako akordioaren bat egiten?

Ez dakit, orain arte ezker abertzaleak beti ezetz esan digulako. Baina EAJ eta EH Bildu herri akordio handiak egiten ikusten ditut. Gobernua osatzeko zailagoa da, bazkideen programen arteko gutxieneko koherentzia bat egon behar delako, eta ezker abertzaleak beti areagotu ditu gurekiko aldeak, gu euskal eskuina bezala aurkezten saiatu dira, gure politiken alde sozialdemokratikak ikusi nahi gabe, eta, orain, zaül ikusten dut haiek *deabru* gisa aurkeztu duten horrekin gobernurako ituna egitea. Baina posible ez ezik, beharrezko

ikusten dut ezker abertzalearekin akordioak egitea herri mailako gai nagusietan: bakean eta elkarbizitzan, autogobernua, garapen ekonomikoan, euskal nortasunean eta abarretan.

Zer iruditu zaizu Pili Zabalen hautagaitza Ahal Dugu-ren lehendakari gaitza izateko?

Ez dut askorik ezagutzen. Aurrekoan Madrilen egon nintzen herrekin, eta emakume irekia eta positiboa iruditu zitzaidan. Apur bat harritu nau, haren soslaia gehiago delako gizarte zibileko pertsona batena. Edozein modutan, gure kultura politikoa oso bestelakoa da: guk militantzian sinesen dugu, eta horrelako operazio-